

Antton Kazabon

BISERA GORRIA



erein

Antton Kazabon

BISERA GORRIA

Perzebal, 37

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaetzkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;
91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2018ko urrian

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Azaleko irudia:

Aitor Arana

Maketazioa:

Erein

© Antton Kazabon

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-344-2

L. G.: SS-1123/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Antton Kazabon

BISERA GORRIA



Abuztuaren 29a

Auzoko Martina, gure laguna, desagertu denetik, urduri gabiltza guztiok. Batez ere helduak. Gu ere bai, jakina, baina auzoko gurasoak erabat beldurtuta, izuak airean. Hogeita lau orduak beren haurrak begien bistatik galdu gabe. Umeak nora, haiek hara, eta ahal bada eskutik askatu gabe. Gu ere kontuz eta beldurrak airean, baina haur ttikien gurasoak erabat aztoratuta daude.

Eta normala da denok urduri egotea, izan ere, inork ez dakigu oraindik zer gertatu zen egun hartan Martinarekin. Hantxe geunden denok elkarrekin auzoko jolas parke ttiki horretan. Gurasoak, lagunak, umeak, gaztetxoak, aiton-amonak... Udako arratsalde bero hartan, hantxe auzoko gehienok. Batzuk oporretan, besteak lanetik atera berriak...

Eta egun hartan, bereziki, ni pozak txoratzen, Martina eta bion arten gertatu zen pasadizotxoarengatik. Gure laguna desagertu baino ordubete lehenago gertatu zenarengatik, inoiz baino kontentago nengoen arratsalde hartan gure jolas parkean.

Txirristak, zarramiloak, pilotalekua, eserlekuak... dena jendez betea, eta egun argitan. Uztailaren 29a zen, eta handik gutxira herriko festak. Arratsaldeko zazpiak ziren eta bat-batean Erika, Martinaren ama, alabari deika sumatu genuen, baina ez genion inolako garrantzirik eman.

Izan ere, nahiko emakume pelma da Martinaren ama. Beti alabaren atzetik, uneoro kontrolatu nahian. Hamabi urte ditu alabak, eta hiru babilu bezala tratatzen du oraindik. Eta hala ere, hari tokatu behar horrelako ezbeharra.

Geroxeago, berriro ere, batera eta bestera sumatu genuen Erika, nahiko urduri, bere alabaren bila. Azkenean, ohartu zenean desagertu egin zela, eta ez zuela inondik ere alabaren arrastorik aurkitzen, builaka hasi zen, eta istanterako garrasika.

Bi begiak kanpora irten beharrean hantxe zebilen gaixoa aurrera eta atzera alabaren bila. Banan bana galdetzen zigun behin eta berriz han geunden guztioi ea Martina ikusi genuen. Denok baietz esaten genion. Hantxe zegoela gurekin. Baina inork ez dakigu zer gertatu zen. Ez ginen inor ere ohartu zer arraio pasatu zen gure lagunarekin.

Geu ere han genbiltzan aurrera eta atzera, korrika eta arnasestuka Martinaren bila, baina alferrik. Ni nire onetik aterata nenbilen. Une batetik bestera agertuko zela pentsatzen nuen, baina hala ere oso urduri jarri nintzen.

Nik artean eskuetan nuen Martinak bi minutu lehenago utzi zidan pala. Frontoian zebilen bere betiko bisera gorriarekin, eta txirristan ibili behar zuela esan zidan bere lehengusu ttikiarekin jolasten. Ez zen inoiz itzuli bere palatxoaren bila. Sinsegaitza, benetan, oraintxe hilabete gure auzoan gertatu zena. Martina gaixoa! Non ote dago?

Martina gure lagun taldekoa da, eta beti elkarrekin ibiltzen ginen. Egia esan, gu biok bakarrik elkarrekin gehiagotan, koadrilarekin baino. Ttiki-ttikitandik gara lagunak, oso lagunak. Egia esan, niri asko gustatzen zait Martina. Beti pozik, beti alai, kirolerako beti prest... Bueno, egia esan, Martina ez zait horregatik bakarrik gustatzen, horregatik ere bai, baina beste zerbait da erakartzen nauena. Daukan irribarrea, daukan begirada, aurpegia...

Egun horretan mutil ezezagun bat ikusi nuen gure jolas parkea zeharkatzen, txandal txamarra zahar eta txanodun beltza soinean, baina ez nuen ezagutu. Txanoa buruan zuela, ez nion ongi ikusi aurpegia. Oso arropa zaharrak zituen eta nahiko zikinak. Eskaleren bat izango zela pentsatu nuen.

Erdi korrika, erdi ezkutuka, erdi makurtuta... Lehenengo aldia zen auzoan ikusten nuela, baina berehala joan zitzaidan burutik irudi hura. Banuen nahiko lana Martina aurkitzen. Asko izutu nintzen

arratsalde hartan eta oso urduri nengoen. Gure lagun guztiak bezalaxe, jakina.

Ondorengo egunetan, ordea, askotan, gehiegitan pentsatzen dut tipo arraro hartaz. Nor ote zen? Zertan ote zebilen han, justu Martina desagertu zen arratsalde hartan?

Gau hartan ez genuen lorik egin. Eta egia esan, ondorengo gauetan ere ez dut behar hainbat lorik egiten. Ez dut ez patxadarik ez lasaitasunik deusetarako. Hogeita lau orduak, Martina buruan.

Abuztuaren 30a

Gure herrian nonbait horrelako gauzak gertatzen dira tarteka. Ni jaiotako urtean ere, orain dela hamabi urte, antzeko zerbait gertatu omen zen mutiko batekin. Beste askotan bezala, arrantzarako kanabera eskutan, erre kara joan omen zen larunbat arratsalde batez, Erramun izeneko hamabi urteko mutikoa, eta ez omen zen geroztik inon ere agertu.

Errekak betiko irentsi, zurrupatu egin izan balu bezala. Baina ur-emari ttikiko erreka da, eta lau-laua gainera... Beraz, ez omen zuen, ez, urak eraman Erramun. Beste zerbait edo norbait izango zela Erramun eraman zuena diote herritarrek.

Gurasoek esan omen zioten ilunabar hartan berandu zela arrantzara joateko, iluna gainean zuela, hurrengo egunean joango zela egunaren argitan. Baina Erramunek kasurik ez eta aurrera. Ilargi beteko gaua zela, eta iluntzean ere egunez bezala ikusiko omen zuen, lasai egoteko.

Harrezkero Erramunen arrastorik ez, eta haren kanaberarenik ere ez. Ez bazuen urak eraman, nork eraman zuen?

Desagertu zen lekutik hiru bat kilometrora, bada errota zahar abandonatu bat, Errotatxo izenekoa, eta herriko zenbaitek dioenez, geroztik errota azpi horretan ikusi izan omen dute tarteka gizaki itxurako norbait. Gauzez errotarri zaharra noizbehinka martxan jartzen dela esaten dute herriko batzuek. Baina jendearen esamesak eta zurrumurruak omen dira.

Erramunen lagunek eta gurasoek eman izan omen dituzte Errotatxo inguruan gauak eta egunak guardian, baina alfer-alferrik. Inork ez omen du bertatik bertara ikusi harrezkero giza itxurako inor. Ezta errekan aspaldi hartan desagertutako mutikorik ere.

Behin, arto irin birrindu berri-berria aurkitu ere aurkitu omen zuten errota zahar horretan, baina... auskalo.

Herriko artasoro batzuetatik artaburuak ere desagertzen omen dira, baina ez da herrian base-ritarrik hori baieztatzen duenik. Inork ez du gai horretaz hitz egin nahi. Zurrumurru hauen hasieran Erramunen gurasoek bai, baina haiek ere nekatu dira jada. Amore eman dutela esaten dute herrian.

Batzuetan herriko dendetan lapurreta ttikiak ere izaten omen dira, baina inork ez omen du inoiz inor ikusi horretan ere.

Guri sekulako izua ematen digu abandonatutako errota zahar horrek, eta ez gara inoiz hurbiltzen bertara. Eta gauez gutxiago.

Batzuek, Erramun lamiaren batek eraman zuela ere esaten dute, baina hori bai ez duela inork ere sinesten.

Beharbada, Errotatxon gauez tarteka agertzen den fantasma hori izango da Erramun? Ikusi dutela esaten dutenen hitzetan, txanodun zamarra beltz handi batez tapatuta ibiltzen omen da, inork aurpegiarik ez ikusteko, inork ere ez ezagutzeko.

Bera izango da artoa lapurtzen duena? Errota martxan jartzen duena? Dendetako lapurra? Nik ez nuen inoiz entzun horrelako konturik, baina orain berritzen ari dira horrelako zurrumurru eta esamesak. Nire ustez, dena da kontua, dena da gezurra eta jendearen asmamena.

Seguruenik jendearen zurrumurrak eta esamesak izango dira horiek guztiak, baina hala ere zer pentsatua ematen didate azkenaldian istorio horiek guztiek. Horrenbesteko imajinazioa ote dute gure herritarrek? Den-dena gezurra ote da, ba? Niri beldur izugarria ematen dit Errotatxoko paraje horrek, eta hango kondairek ere izuak airean jartzen naute, baina gustura joango nintzateke

bertara eta hantxe astebete igaro, ea zer arraio gertatzen den.

Baina oraingoz ez dut horretarako ausardiarik.